

Etxebizitza buruhauste bihurtzen denean

Espainiako estatuan, denok dugu etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea. Idatzita dago, Espainiako Konstituzioaren 47. artikuluan, zehazki. Legeak, gainera, hori bermatzeko beharrezko baldintzak bultzatzera behartzen ditu botere publikoak. Errealitatea, ordea, bestelakoa da. Dela erosita, dela alokairuan, asko dira bizitzeko etxea lortu edo ordaindu ezinean dabiltzanak. Behin eskuratuta, **desjabetzea**¹ pairatzen dutenak ere ez dira gutxi. Horietako batzuk, babestuko dituen testuinguruaren faltan, kale gorrian geratuko dira... eta egoera kronikoa bihur daiteke. Etxebizitza Sindikatuak, Gipuzkoako Kaleratzeak Stop-ek eta Bizitegik, esaterako, ondo ezagutzen dute afera, egunero egin behar izaten diotelako aurre, maila eta modu ezberdinetan, etxebizitzaren arazoari: jendeak lortu ezin duelako, galdu egin duelako, kendu egin diotelako, kalea duelako bizitoki... Etxebizitza, edo haren eza, arazo latza da askorentzat jendarte honetan. Izan ere, gezurra eman arren, legeak aitortzen² digun etxebizitza duin eta egoki hori utopia hutsa da, XXI. mendearen hasierako Euskal Herrian, batentzat baino gehiagorentzat. **EÑAUT MITXELENA, M. EGIMENDI, ESTI LANAQ.**

1. **Desjabetu:** *expropiar (es), expropier (fr).*
2. **Aitortu:** *reconocer (es), reconnaître (fr).*
3. **Burbuila:** *burbuja (es), bulle (fr).*
4. **Larrialdi:** *krisi, krisialdi.*
5. **Etxegabetze:** *desahucio (es), expulsion (fr).*
6. **Hedatu:** *zabaldu, areagotu, handitu.*
7. **Mailegu:** *crédito (es), crédit (fr).*
8. **Zaugarri:** *vulnerable (es), vulnérable (fr).*
9. **Samur:** *erraz, atsegin.*
10. **Batezbesteko:** *promedio (es), moyenne (fr).*
11. **Funts putre:** *fondo buitre (es), fond vautour (fr).*
12. **Engaiatu:** *konprometitu, inplikatu.*



www.duchaya.com

Bainuontziaren
ordez dutxa 8
ordutan.

Kalitate gorena
Euskal Herrian aitzindari.



lehen

gero

DONOSTIA | 943 494 893 BILBO | 946 440 304 BARAKALDO | 946 477 047 GASTEIZ | 945 102 586 IRUÑA | 948 102 727



TEL. 943 55 58 46 • MUGIK. 616 287 867
LARRE-GAIN BASERRIA • EREÑOZY - HERNANI





Euskadiko plataformako kide
Arturo Val del Olmo, Rosa Garcia
eta Marce Garcia Carpio.

“Etxebizitzaren burbuila³ eta negozio espekulatzaila alokairuen merkatura igaro da” “Etxebizitza larrialdia⁴” bizi dugula salatu dute, azken boladan, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Kaleratzeak Stop plataformek. Horren zergati, ondorio eta irtenbideei buruz mintzatu zaizkigu Gipuzkoako plataformako Rosa Garcia eta Marce Garcia Carpio.

Espainiako Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren datuen arabera, 2018an 1.191 **etxegabete**⁵ izan ziren Euskal Autonomia Erkidegoan, 2017an baino % 0,4 gutxiago. Hor daude hipotekak edota alokairuak ez ordaintzearen ondoriozkoak, bigarren etxebizitzak, lokalak... Garcia Carpiok dioenez, “hipotekengatik egindakoak, gure plataformaren sorrera eragin zutenak, asko gutxitu dira, hipoteketako neurritz kanpoko baldintzen aurrean kontsumitzaileen babeserako aukerak handitu zirelako”. Haatik, arazoa ez da desagertu, **hedatu**⁶ baizik: “Bankuek, hainbeste auzi izanik, **maileguen**⁷ iturria itxi zuten, eta etxebizitzaren burbuila eta negozio espekulatzaila alokairuetara igaro da.”

Erosita edo errentan, etxea eskuratzeko gero eta zailagoa da. Bai egoera **zaurgarrian**⁸ diren pertsonentzat bai gainerakoentzat. Erostea, zail: “Etxea erosteko maileguak lortzeko eskakizun ekonomikoak zorrotz egin dituzte bankuek”. Zail, eta garesti: EUSTATen arabera, 2018ko lehen hiruhiletatik 2019ko lehen hiruhiletara, % 8,9 garestitu zen etxebizitzaren prezioa. “Arazoak lotura estua du lan eta soldata prekaritatearekin. Ongi ordainduriko lan egonkorrik gabe, inork ezin du pentsatu ere egin banku batek 20 urtetik gorako mailegua emango dionik” diote.

Ondorioz, jende askok alokairura jotzea beste erremediorik ez du. Baina, hor ere, egoera ez da batere **samurra**⁹. Datuak argigarriak dira: EUSTATen arabera, 2019ko lehen hiruhile-

“EAEn, lau lagunetik ia batek arazoak ditu etxebizitza duina eskuratzeko”

ko datuak aintzat hartuta, alokairuko etxeen **batezbesteko**¹⁰ errenta 1.047,7 eurokoa zen EAEn, urtebete lehenago baino % 10 garestiagoa. Areago, 2013tik, % 26,9 igo da alokairuen prezioa, batez beste. “Hiri Alokairuen Legetik eratorritako etxegabeteen datuak, Espainiako alokairurik garestienak hemen izateak, alokairuen merkaturaren **funts putreak**¹¹ sartu izanak, eta alokairu babestuan zein librea eskaintza txikia izateak (azken kasu honetan, eskaintza asko pisu turistikoetara bideratu delako) erakusten digute burbuila salerosketatik alokairura aldatu dela. Eta alokairua da, hain zuzen, etxea behar duten milaka familiaren babesleku bakarra”. Ondorioz, etxea eskuratzeko zailtasunak “izugarriak” dira, are gehiago “baliabide urriko pertsonentzat. Esaterako, Diru sarrerak bermatzeko errenta jasotzen ari bazara, higiezin enpresek zuzenean baztertzen zaituzte.”

Egoerari neurria hartzeko, “datuak hor daude” dio Garcia Carpiok: “Etxebiden, egun, 55.000 familia unitate baino gehiago daude izena emanda alokairu babestua eskuratzeko”. Horrez gain, “Caritasen urteroko txostenek eta bes-

te zenbaitek agerian uzten dute drama: EAEn, lau lagunetik ia batek arazoak ditu etxebizitza duina eskuratzeko; 233.000 lagun gastu gehiegi dituzten eta ordaindu ezin dituzketen etxeetan bizi dira... Babestutako alokairuan ere, arazoa larria da: Alokabidek ehunka txosten ditu zabalik, gizarte alokairua ordaintzeko arazoak dituzten familienak.”

Gauzak aldatu ezean, alokairuak ez ordaintzeagatik agindutako etxegabeteak gero eta gehiago izango direla uste dute. “Alokairuen legea jabeen aldekoa da erabat, eta merkaturaren askatasunean oinarrituta dago. Orain arte, horrek ez zuen ez maizterren ez alokairuen egonkortasuna ahalbidetzen. Orain, kontratuen gutxieneko iraupena 5 urtera luzatu da, eta, kontratuak iraun bitartean, alokairuaren igoera KPlak mugatzen du. Espero dugu honek zertxobait egonkortzea egoera. Halere, 5 urte horiek igarota, jabeek kontratua eteteko edota alokairua nahi adina garestitzeko askatasuna dutenez, merkaturaren ezegonkorra izatea eragiten dute, eta etxegabeteek jarraitzea.”

Plataformaren ustez, egoera honen ondorioz “etxebizitza larrialdia” bizi dugu. Horri aurre egiteko, alokairuaren merkaturaren eragiteko manifestua aurkeztu zuen iragan maiatzean. Besteak beste, “oinarrizko” hiru ekinbide proposatu zituen: “Babestutako alokairurako aurrekontu handiagoa; alokairuaren merkatu librean esku hartzea eta zaintza egitea; eta gizarte funtzioa betetzen ez duten etxebizitza hutsak mugiarazteko neurriak”. Era berean, Eusko Jaurlaritzari eskatu diote baliabide gehiago bideratzeko etxebizitzaren arazoari aurre egiteko, batez ere alokairuari dagokionez: “Etxebizitzak gizarte funtzioa betetzen duela ziurtatzeko neurriak, izan inbertsio edo negozio”. Halaber, uste dute “alokairuen prezioan esku hartu behar dela, eta errenten erreferentziazko indize fidagarria eduki. Izan ere, merkaturaren espekulatzailen esku utziz gero, oinarritzko behar eta eskubidea dena negozio-rako objektu bihurtzen da. Eta horrela sortzen da burbuila. Bada, aldatu egin behar dugu.”

Izan ere, etxebizitza izateko eskubideak, oinarritzko eskubidea denak, pribilegio izaten jarraitzen du, “zalantzarik gabe”. Halere, “egoera aldatzeko borrokan jarraituko dugu. Horretarako, jendeak gehiago **engaiatu**¹² behar du honetan, eta indibidualismotik aldentu. Gure plataformaren leloak eta gure esperientziak dioten moduan: Bai, ahal da”.



“Etxe bakoek, bizitokia eta janaria baino, agian nahiago dute besarkada bat”

Pablo Ruiz Errea (Bilbo, 1969) Bizitegi elkartearen zuzendari teknikoa da. Xede dute hainbat pertsonaren gizarteratze prozesua erraztea, ahalik eta autonomia mailarik handiena eta bizi kalitate onena izan ditzaten. Ruizek 22 urte daramatza lan horretan, eta ondo ezagutzen du kalean bizi direnen egoera.

“Kalean lo egiten dutenen artean, gehiago dira gizonezkoak, baina etxebizitza desegokian daudenen artean emakumeak izango dira gehiago”

“Pertsona hauetako askok bere buruarekiko duintasuna balioesten dute gehien, bere buruarekin ondo konpondu ahal izatea”

baki dute oinarrizko beharrak etxea, janaria eta garbitasuna direla, eta, batzuetan, ez dituzte pertsonen intimitatea eta duintasuna errespetatzen”.

Oinarrizko beharrak ez baitira berdinak denontzat. Bizitokirik gabeko pertsonak, “batez ere, beldurra dute. Ziurrenik, gauza txar asko gertatu zaizkie, eta normala da jendearekiko **mesfidantza**⁴ sentitzea”. Beraz, haien oinarrizko beharretako bat da seguru lo egitea: “Horregatik jotzen dute askok kutxazainetara. Oinarrizko beharra dute, halaber, kalean begiratzeko dien jendeak epaituta ez sentitzea. Eta oinarrizkoa dute beren buruarekin duintasunez bizitzeko aukera ematen dien edozer. Pertsona hauetako askok bere buruarekiko duintasuna balioesten dute gehien, bere buruarekin ondo konpondu ahal izatea eta **bere buruaz beste egiteko**⁵ gogorik ez edukitzea. Beraz, bizitokia eta janaria baino, agian nahiago dute besarkada bat”.

Gure sisteman, pertsona hauek “azken muturrean” daudela dio Ruizek. “Behin eta berriz gogorazten diete daukaten gutxi hori oparitu egin dietela, baina ez da egia. Konstituzioak dio bizitokia eskubidea dela! Gure jendartean, etxebizitza tresna ekonomikoa da; 47. artikulua famatua beteko balitz, ordea, orain kalean dauden gehienek edukiko lukete bizilekua”.

Ruizen ustetan, “alokairua sustatu eta erraztu egin behar da, zergak ezarri etxebizitza hutsei... Nire ustez, bizitokia izateko eskubidea jabego eskubidearen gaineratik dago”. Horrez gain, etxebizitza publikoak beste parametro batzuen arabera eraiki beharko lirakeela dio: “Guk artatzen ditugun pertsona batzuentzat irtenbide perfektua dira 40 metro koadroko etxeak, edo zerbitzu komunak dituzten bizileku kolektiboak, non bakoitzak bere txokoa edukiko lukeen, denbora eperik gabe. Halere, ez jendartean gehien goak ez politikari gehienek ez dute interes handirik etxebizitza, **ondasun**⁶ ekonomikoa baino, bizitzeko ondasuna izan dadin”.

Bizitegi duela 40 urte sortu zen, Bilboko Otxarkoaga auzoan, zenbait behar eta arazo zituzten auzotarrak hango kaputxino komunitate batera jotzen hasi zirenean. Orduan sortu zituzten elkarbizitzarako unitate funtzionalak: jendea “bizitegi” izenekoetan batzen hasi ziren, elkarren beharrak **asetzeko**¹, babestuago egoteko eta ahalduzko.

Harrezkero, lau hamarkada igaro dira, eta orain sistemak babesten ditu pertsona horiek, baina “batzuetan, parasito bihurtzen ditu betiko”, Ruizen esanetan. “Hori ez zaio inori gustatzen; gainera, **artatuak**² izateko, ‘bartzertu’ etiketa behar dute. Paradoxa handia da norbaitek hori nahi izatea. Sistema honek, justua dela ukatu gabe, pertsonak gauza bihurtzen ditu”.

Bizkaian, azken datu bilketan, etxerik gabeko 1.362 lagun zenbatu ziren, kalean lo egiten dutenak eta bizitoki desegokia, ezegonkorra edo arriskutsua dutenak batuta. Kalean lo egiten dutenen artean, gehiago dira gizonezkoak, “baina etxebizitza desegokian daudenen artean emakumeak izango dira gehiago”. Izan ere, “kalean topatzen ditugun emakumeak oso egoera ahulean daude, hondoa erabat jota, ezin izan direlako

beste inon gelditu”. Izan ere, aukera batzuk ez dira beti onak izaten: “Gerta daiteke norbaitek etxean hartzea, garbiketa lanak egitearen truke edo, baina oso posible da aukera hori gizonezko batek eskaintzea eta trukean gauza gehiago eskatzea. Uste dugu horrela daudela emakume asko, kalean bizitzea baino hobea delakoan, baina ez dugu daturik”.

Pertsona horiek bizitokia lor lezakete, gizarteratze prozesu batean sartuz gero, “baina batzuetan, arazoa etxebizitzarik eza baino ez denean, gizarte zerbitzuek prozesu luze eta astunetara bideratzen dituzte”. Kalean bizi diren batzuek “oso ondo” zaintzen dituzte beren txokoak, “eta etxea balute, berdin egingo lukete, baina gizarte zerbitzuek baldintza piloa jartzen diete. Karitate sistema batetik **eratorritako**³ gizarte zerbitzuek era-

1. **Ase:** bete.

2. **Artatu:** arreta eman, zaindu.

3. **Eratortri:** derivar (es), dériver (fr).

4. **Mesfidantza:** konfiantzarik eza.

5. **Nork bere buruaz beste egin:** suizidatu, nork bere burua hil.

6. **Ondasun:** bien (es), bien (fr).

“Ziurgabetasuna eta babesgabetasuna dira nagusi arazo honetan”

Etxebizitzaren arazoari aurre egiteko asmoz, Etxebizitza Sindikatua sortu dute, Gasteizen, hainbat gaztek. Igandero biltzen dira Karla Berrojalbiz (Bilbo, 1996) eta Sindikatuko gainerako kideak Gasteiz Txiki elkartearen, hiriko Alde Zaharrean.

Nabari da Gasteizek azken urteotan izan duen antolakuntza mugimenduak indarra hartu duela. Izan ere, hainbat kolektibo sortu dira azkenaldian, oso denbora gutxian. Esate baterako, duela bi urte, **Birjabetze**¹ Kolektiboa eratu zuen okupazio eta autogestio mugimenduetan aritutako gazte talde batek, etxebizitzaren arazoari aurre egiteko. Horren ondoren, Okupazio Bulegoa jarri zuten martxan, eta aholkularitza juridikoa eta teknikoa emateko helburua finkatu zuten.

Sorreratik, eta denborak aurrera egin ahala, hainbat **hausnarketa**² egin behar izan dituzte: “Etxebizitzaren problematika pilaketa kapitalistaren eta krisiaren testuinguruan ulertzen hasi ginen, eta, langileen **gabeziez**³ ohartu ginenean, egoera horri aurre egiteko zeuden ekimenak azertu genituen”. Bide horretan, militantzia ereduaren eta proposamen politikoaren berrikuspena egin behar izan zuten. Horrela, hiru oinarri zehaztu zituzten: “Alde batetik, militantzia konprometitua behar dugu; bestetik, behar materialetatik abiatzen den indar politikoari ezinbestekoa deritzogu; eta, azkenik, langilearen interesak babesteko dituen erakunde independentea izan behar dugu”.

Birjabetze Kolektiboaren antolakuntza formak, baina, ez zituen helburu guztiak betetzen. Beraz, aipatu hiru printzipioei hobeto heltzeko, erabaki zuten Etxebizitza Sindikatua sortzea zela egokiena: “Ez zen erabaki estetikoak izan; antolakuntza prozesuan murgilduta geunden, eta sindikatuaren ideia egokientzat jo genuen”. Izan ere, sindikatu berebarekin langileen beharrak **asetzeko**⁴ eta bizi baldintzak babesteko sortu den antolakuntza formari egiten diote erreferentzia. Horiek dira, hain zuzen ere, Etxebizitza Sindikatuaren xedeak. Beraz, langileen beharrei zuzenean erantzuteko, sindikatuaren kontzeptu klasikoak berreskuratu dute.

Idea horiei guztiei forma emateko, igandero biltzen dira, arratsaldean, asanbladan, Gasteizko Alde Zaharreko Gasteiz Txiki

“Elkartasunez laguntzen duten pertsonak badira, eta asanbladaren bitartez egoeraren berezitasuna gainditu eta modu kolektiboan babestu behar dutela ulertzen duten pertsonak ere bai”

auzo elkartearen. Edonork har dezake parte, eta jendea nor bere arazoekin gerturatzen da bertara. “Dena dela, ezinbestekotzat jotzen dugu Sindikatuaren funtzionamendua ulertzea; hots, argi izatea zer jaso eta zer eman behar duen”. Kasu ezberdinetarako garatutako tresnak dituzte, besteak beste, aholkularitza juridikoa, mobilizazioak edo manifestazioak. Zenbait kasutan, beste eragile batzuk aproposagoak izan daitezke arazoari irtenbidea bilatzeko, eta laguntza bila etorritakoak haietara bideratzen dituzte. Hala ere, normalean, Sindikatuaren ahalmenekin aurre egiten saiatzen dira.

Gasteizek arazo franko du etxebizitzaren arloan, eta Karla Berrojalbizek hainbat zehaztu nahi izan ditu. Alde batetik, Azterketa Teknikoak ugaritzen hasi direla azaldu du: “Horien bitartez, etxebizitza konpontzeko

- 1. Birjabetze:** zerbaitez berriz jabetu.
- 2. Hausnarketa:** gogoeta, pentsaketa.
- 3. Gabezia:** carencia (es), manque (fr).
- 4. Ase:** bete.
- 5. Gehiegikeria:** neurritz kanpokoa.
- 6. Bakandu:** isolatu, baztertu.
- 7. Ziurgabetasun:** incertidumbre (es), incertitude (fr).



dirurik ez duten familiak etxegabetu, eta haien etxeak higiezin enpresen esku geratzen dira”. Beste alde batetik, sarrien gertatzen diren arazoak ditugu, alegia, langileen artean ohikoenak: “Alokairuzko etxean erroldatzeko ezintasuna, legez kanpoko alokairu kontratuak eta kontraturik gabeko alokairuetan izaten diren **gehiegikeriak**⁵, esate baterako”. Etxebizitza arazotzat jotzen ez direnak ere badira: “Besteren artean, bizitza normaltasunez garatzeko ezintasunak, langileen artean: banandu den bikotea, tratu txarrak jaso eta gabeziengatik etxea utzi ezin duen emakumea, emantzipatu ezin den gaztea, besteren artean”. Erakundearen aurrean **bakanduta**⁶ daudela salatzen du Berrojalbizek: “**Ziurgabetasuna**⁷ eta babesgabetasuna dira nagusi”. Hain da handia zalantzazko egoera hori, ezen zentzugabekoa iruditzen zaien bide instituzionalen labirintoetan geratzea. Horregatik, klase antolakuntzaren aldeko apustua egin dute: “Horren bidez, gure berehalako beharrak aseko ditugu eta kapitalaren erasotik babesteko gara”. Bidea ez da erraza izaten ari, noski, eta ez da izango, baina norabide onetik doazela ikusten ari dira: “Elkartasunez laguntzen duten pertsonak badira (errolda lortzen, etxea konpontzen...), eta asanbladaren bitartez egoeraren berezitasuna gainditu eta modu kolektiboan babestu behar dutela ulertzen duten pertsonak ere bai”. Horrek, beraz, itxaropen argia pizten du etxebizitza eta bizimodu duina lortzeko tunel ilun horretan.